

ILACROS

VENDE

93 68 90

Argiantza

Pello Lizarralde

n a r r a t i b a

ARGIANTZA

Narratiba, 125

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2020ko apirilean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Azaleko argazkia:

José Ignacio Agorreta

Maketazioa:

Erein

© Pello Lizarralde

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-599-6

L. G.: D 383/2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pello Lizarralde

ARGIANTZA



Atarira irten orduko akomodadoreari zipriztin gaziz bete zitzaion aurpegia. Istantean eskua senez jaso zuen kopeta eta betazalak lehertzeko. Gero itsas pasealekuko petrilaren gainetik ageri zen zerumugako zerrenda gorrixkan iltzatu zituen begiak. Ez zuen zirkinik egin harik eta olatuak petrila bustitzen hasi arte. Orduan begiak kliskatu eta besoak hazta eginda ezker aldera jiratu zen.

Handik ehunen bat metrora proiektionistaren itzala bereizi zuen txaleten pareko espaloian aurrera zihoala. Ate gaineko neoi argiak gorputzaren alde bat urdintzen zion akomodadoreari. *Atlantic Zinema* zioen errotuluak, eta *c* letrak ñir-ñir egiten zuen. Argi margul hark ozta-ozta tindatzen zituen atariko lauzak, eta txartel-degiaren alde batean zegoen bitrinan islatzen zen. Bitrina barrenean bi afixa. Ezkerrekoan, lurreratu nahian zebilen abioi korapilatu baten karikatura ageri zen, eta pistaren gainean filmaren izenburua: *Airplane*. Eskuinekoa, emakume baten aurpegiak eta bere aingeruzko ile horiak betetzen zuten ia osorik. *Xanadu* zegoen idatzita bere buru gainean.

Zinema aretoko atartean sartu bezala akomodadoreak eskuin jo zuen, aldi berean aldagela eta biltegi zen gelaraino, eta argi-aula ireki ostean hiru etengailu beltz jaitsi zituen. Handik irten eta ondoko eskailetatik proiektzio kabinaraino igo zen. Goiko korridore meharreko argia aski izan zitzaion ohartzeko proiektionistak dena txukun utzia zuela. Itzalita zeuden argi guztiak, eta bobinak bi zakuan sartuta. Txarteldegiraino jaitsita erdiko kaxoi zabala ireki zuen. Sarrerekin bildutako billeteak gutun-azal batean zeuden eta txanponak plastikozko zorro batean.

Atzera biltegiara itzulita, akomodadoreak bere jaka griseko sakelak husteari ekin zion. Mahai txiki batean jarri zituen aretoko eserlekuen artean aurkitutakoak: pezetako eta duroko dozena erdi bat txanpon, bi karamelu poltsa erdi beteak, sakelako orrazi bat eta giltza sorta bat. Orrazia eta giltzak metalezko armairu batean utzi eta gero laneko jaka eskegi eta korridorea zeharkatu zuen komuneraino inguratzeko. Komuneko atea ireki arren ez zen sartu, eta adia barrenekoan jarrita egon zen pixka batean. Tanta hotsa eta tanga baten jarioarena beste soinurik iritsi ez zitzaionez atartera egin zuen berriz.

Ate nagusia zabal-zabal eginik zegoen eta itsasoko haize hezearen pasak aretoko sarrerako errezelak harrotzen zituen. Akomodadorea areto ilunari begira jarri zen. Zurezko eserlekuen artetik krakateko apalak heldu zitzaizkion. Errezelak tiratu eta atea itxitakoan pasealekuan piztu berriak ziren farolen argi horia islatu zen zurezko bi orrien leihatila biribiletan.

Giltzak eskuan akomodadorea txarteldegi ondoko hormaraino hurbildu zen sarrerako argiak itzaltzera. Aterainoko tartea ilun betean eginda bi giltza bereizi eta ate nagusia itxi zuen. Kanpoan, zerura begira eman zituen lehenengo pausoak. Bakan zeuden izarrak eta denbora gutxi irauten zuten begien aurrean.

Txalet arteko orube hareatsu batetik kilker baten kantua goratzen zen.

1982ko irailaren 19a

Ederki asko dakit zertara etorri naizen. Alferrik hasiko naiz ez direnak asmatzen. Aitzakiak bilatzea ez litzaidake asko kostako. Esan nezake ez zitzaidala niri bururatu, zuzenean eskatu gabe ere Alfonsoren semeak estutu eta bultzatu ninduela... Horiek eta antzeko beste batzuk.

Ez da egia, ordea. Inakik ez du ni behartzeko ez adinik ez larde-riarik, ez ezer. Iritsi berria da aitak utzi ziona gobernatzera, eta ez daki ezer. Ekonomia ikasketak eginak izango ditu, baina ez du horrelako enpresa bat eramateko behar dena. Lotsa zer den ez daki, eta berehala konturatu nintzen eskrupulurik ere ez duela batere. Kontuak egiten ditu ondo, horretarako ikasi baitu.

Ni ere ez naiz makala lan horretan, eta udako balantzea eginda etorri zitzaidanean aurre egin nion pixka batean. Laster isildu behar izan nuen, haatik. Dena ederki prestatuta zekarren eta zaila zen kontra egitea. Gainera, dena errematatzeko karpeta handi bat atera zuen azken hiru urteetako kontuak erakusteko. Xehe-xehe azaldu zizkidan, eta ezin argiangoak ziren. Ez nion bukatzen utzi. Gauzak bere tokian uzteaz gain, sumatu bainuen bide batez, eta hitzerdika bazen ere, adierazi nahi zidana zela ez nuela nire lana behar bezala bete.

Ez zen egia, jakina, baina azkar ohartu nintzen ez nuela ezer egiterik kontrakoaz konbentzitzeko. Hark emaitzak alderatzen zituen, eta ez zuen besterik ikusiko. Alferrik hasiko zinen esaten gutxiago irabazteak ez zekarrela galtzea. Kurbak beheranzkoak ziren, eta kito.

Begietara begiratu nion, eta mututurik gelditzea erabaki nuen. Besoak mugitu zituen, urduri. Zerbait esatera behartu nahi nuen, eta azkenean bota zuen: zerbait egin behar da, Ramon, gauzak ezin dira horrela utzi.

Ez nion jarraitzen lagundu, ez nion bidea erraztu nahi. Zer daukagun aztertu behar genuela esan zidan, nola zeuden herrietako aretoak eta zertan zebiltzan haietako langileak.

Beste baten ahotan hura ezer ez esatea bezala zen, baina hark erakutsi zidana ikusi eta gero, erraz atera zitezkeen esan gabeak. Orduan, birritan pentsatu gabe erantzun nion neu arduratuko nintzela, uzteko niri eta handik hamarren bat egunera zer edo zer esango niola.

Konforme geratu zen, neurri batean behinik behin arinduta ematen zuen. Astelehenean hasiko nintzela esan nion, eta aste bat nahikoa nuela ikuskatze lana burutzeko. Eta hemen nago, agindu niona betetzeko prest.

Lanak ditut oraindik sinesten, ez dakit zerk eraman ninduen pauso hau ematera. Erabaki berritan sinetsita nengoen enpresako jendearen mesedetan ari nintekeela, gaztearen aldean zuzenago joka nezakeela. Orain jabetzen naiz nire harrokeria ere ez dela txikia. Ondo begiraturaz gero, zertan naiz ni Iñaki hori baino hobea?

Neuregatik ari naizela hasi naiz pentsatzen. Mugitzeko beharra dut, nora ez badakit ere. Maritxu hil zenetik nik bakarrik dakit nolakoak ikusi ditudan. Bitartean lanean jarraitzeak eman dit kemena. Eta ez da erraza izan orain dela hiru urte hartu nuen erabakiari eustea. Lagunek ere lotsa galdu eta adarra jotzen didate. Eta talaka emateko orduan alaba da okerreña. Aita, oraintxe disfrutatu beharko zenuke, esaten dit ia etortzen den aldiro. Erorita ikusten nau, nonbait, eta hobe beharrez esaten didan arren, beste gauza batzuk begiratu beharko lituzke eta pentsatu zer ateratzen dudan betiko jardun honetatik.

Ez dut etxeko ardurarik alabak etxean laguntzeko emakume bat ekarri zidanetik. Otordu asko kanpoan egiten ditut. Bulegoan dut atsedean. Hemen ez naiz erlojuari begira egoten, ez nau inork estutzen eta bakarrik ematen ditut laneko ordu gehienak. Noizean behin hiri honetan ditugun langileak agertzen dira, utzi beharrekoa utzi eta alde egiten dute.

Beti gogoko izan dut errutina, lagungarria zait, dena errazago eramaten da. Horregatik beldur antza sentitzen dut honaino etorrita. Ez da bakarrik nire buruari jarri diodan eginkizuna, etxetik ateratze hutsak eragiten didala esango nuke.

Ziur ez badakit ere zertarako balio izango didan, egunotakoa idatziz jasotzea erabaki dut. Eskua mugitze hutsak dardara ezezagun hau baretzen laguntzen dit. Kolegioan egon nintzenetik ez dut esaldirik josi, kontularitza liburuek ez baitute antzekorik onartzen, eta gurean Eguberrietako zorion txartelak idazteko lana ere Maritxuk hartzen zuen.

Beste edozein barrez lehertuko litzateke ikustean zer laburra den egin behar dudan ibilbidea. Gezurra badirudi ere, enpresa honetan eman ditudan hogeita hamar urteetan ez dut lau areto besterik eza-gutu, gure hiri honetakoak, alegia. Bost bisitatu beharko ditut bihar-tik aurrera, eta itsaso aldean dugunetik hasiko naiz.

Urteak dira ez nintzela itsasotik hain hurbil. Azkena Maritxu-ekin etorri nintzen. Gaixorik zegoen ordurako, eta gogoratzen naiz igande pasa egin genuela. Gaurko hotela hondartza ondoan dago. Afaldu eta zuzenean igo naiz logelara. Toki xumea eta garbia da. Hemendik ez da sarrerako fokuek argitzen duten itsaso zatia besterik ikusten, baina usaina eta soinua barreneraino sartzen dira. Maritxuk esaten zuen itsas aldean zerraldo lo egiten dela. Hala bada, ez zait gaizki etorriko.

Eskerrak goiz etorri naizen. Hitzordua goizeko hamaiketan jarria genuen, baina hogeit bat minutu lehenago hemen nintzen. Garbitzailea ez zen agertua eta bezperan utzi nuen bezala zegoen dena. Horregatik, sarrerako atea eta aretoko zabal-zabalik uztea erabaki dut. Kanpoan epel zegoen eta brisa leuna zebilen. Hori ez da, ordea, nahikoa izaten barrena egurasteko, eta biltegira joan naiz airea lurrintzeko likido berdearen bila aretoan botatzeko. Nik jada ez dut lurrina aditzen, baina kanpotik etortzen direnek eskertu egiten dute, gozoa dela esaten didate.

Espaloiraino atera naiz gero. Ez dut minutu pare bat ere itxaron behar izan. Sekula ikusi gabea nuen arren, gerentea behar zuela pentsatu dut begiztatu orduko. Txaleten aldetik ari zen inguratzen, oinez eta bizi-bizi. Harritu egin naiz, ni auto baten zain bainengo. Gero jakin dut hondartza ondoan hartu duela ostatu.

Nigandik hamar bat metrora zegoela aretoaren izenari erreparatu dio, eta haren aurrean burua apur bat bihurtzean eguzkia betaurrekoetan islatu zaio eta begiak estali dizkio istant batez. Jarraian niganaino etorrita nire izena galdera doinua jarritz ebakitzen zuen bitartean bostekoa luzatu dit, eta eskua askatzeaz batera, bere izena eta deitura eman dizkit aditzera.

Ez da oso esku estutze kementsua izan. Une horretan bere usaina aditu ahal izan dut, bizarra egin berria zuen eta kolonia arin bat ere emana zuela esanen nuke. Bidaiaz galdetu diot, eta laburra eta atsegina izan zela esan dit, xehetasunik eman gabe. Itsoari begira hitz batzuk egin ditugu eguraldiaren ederraz. Orduan gerentearen itxurari erreparatzeko aukera izan dut.

Ez nuen espero gizon gaztea izatea, baina harritu egin nau frogatzeak ia hirurogeita hamarren bat urte izanen dituela, erretiroa hartua behar zuela, inondik ere. Itxura oneko dago, hala ere. Bizkar makurrak eta betaurreko atzeko begi nekatuek kentzen

ziotena neurri batean bere janzkeraren dotoreziak berdintzen zuen. Diskretua, betiere: udako traje urdina, gorbata granatea eta rejillazko zapatak.

Laster, keinu berantetsia egin du. Eskua lokira eraman eta bere ile sarri urdindua ukitu duenean zineman sartzera gonbidatu dut. Arartean gelditu da pixka batean, nora jo ez zekiela. Inora joan aurretik ohartarazi dut garbitzailea ez zela etorria eta aretoa artean txukundu gabe zegoela.

Txarteldegia eta biltegia erakutsi dizkiot. Alartzetik behatu ditu hitzik egin gabe. Buruaz baietz egin du nire azalpenak entzutean. Berdin proiektzio kabinara igo garenean. Komuna non den ere erakutsi diot, baina ez du hara hurbiltzeko keinurik egin. Ezagun zen aretora jo nahi zuela zuzenean.

Erdiko trantsituan gelditu da jarlekuak, hormak eta sabaia behatzeko. Esku bat trajearen sakelan zuen eta soinu txiki bat ateratzen zen handik. Laster konturatu naiz boligrafoaren punta ateratzeko eta sartzeko gailua sakatzen ari zela etengabe. Gero urrats batzuk egin ditu aretoan behera bi aldeetara begira, astiro, niri kasurik egin gabe. Azken ilarara heldutakoan burua jaso du, pantaila aldera. Eskuinean eszenatokira igotzeko mailak ikusi ditue-nean atzera begiratu du, ni nengoen tokira, baimena behar balu bezala. Azkar mugitu naiz, eta, neu aurrean nintzela, kasu emateko eskatu diot igotzen hasi garenean. Pantailak libre uzten duen tarte txikitik pasatu gara atzeko aldera. Orduan lotsa pixka bat pasatu dut, aspaldian egon gabea izanagatik, bai bainekien han ez dagoela erakutsi daitekeen ezer.

Pantailak ezartzen zuen argiantzaren pean gerenteak behako laburrak egin dizkie lehenik han baztertutako jarleku hautsiei, gero zoruan botata zeuden oihal hautsez beteei eta azkenik garbitzai-leak utzitako erratz eta bestelakoei. Bitartean ez du txintik atera.

Lehengo bidetik jaitsi eta aretoaren arranpan gora egitean ohartu naiz gerentea azkarrago zihoala, burua lurrera eginda.

Atartera iritsita komunera joan behar zuela esan dit. Nik geletako argiak itzali ditut eta zain geratu naiz. Bizpahiru minutu egin ditu komunean. Handik irten eta berehala kanporako keinua egin du. Elkarren ondoan joan gara pasealekuraino. Gauza itsusia iruditu zait buruan nerabilen galdera zuzenean egitea eta ea hirira itzultzekoa den galdetu diot. Beste zinema batzuk ere bisitatu behar dituela esan dit. Seinale zen ez zuela horretaz jardun nahi, eta hitz beste egiteko nireaz interesatu da: denboraldia bukatu denez atsedean hartu beharko duzu... Ezetz, nik, bidaianta naizela, burdinkiak saltzen aritzen naizela udazkenean sartutakoan, lana, egiazko lana, horixe dudala. Gerenteak entzun bitartean baietz giten zuen buruaz.

Toki honetan zenbat urte daramadan jakin nahi izan du. Hogeita laugarrena bete dudala erantzun diodanean lepoa apur bat bihurtu eta ezpainak zimurtu ditu. Ez da gutxi, gaineratu du orduan. Lana ez dela lehengoa, berez ez dela nekagarria, baina gero eta gehiago irentsi behar izaten dela esan diot. Ezer ez da lehengoa, erantzun dit burua apalduz eta mingaina klaskatuz.

Agurrekoan ere, eskua estutzean, nire izena errepikatu du. Ekarri duen bidetik itzuli da, ia honakoan bezain arin.

* * *

Hoteleko pergolara zeramaten eskailetan gora hasi aurretik gerentea lehenengo mailan gelditu zen zapata zoletan zekarren harea kentzeko. Goraino igo orduko sakelan ongi tolestuta zeukan musikapia atera eta kopetako izerdi tanta ttikiak idortu zituen. Eskuekin puntuzko atorra urdinaren lepoari tira egin zion berotasuna arindu nahian.

Pergolaren zutabeetako batean bermatuta hondartzara begira jarri zen. Uretan hiru buru ñimiño begiztatu zituen urre koloreko orban dirdaitsuen artean. Soroslearen aulki luze hutsaren ondoko hagan jada ez zegoen banderarik. Handik metro gutxira zeuden pilatuta alokatzeko aulki tolesgarriak, eta inguruan bi mutiko ari ziren harea orpoaz harrotzen futboleant jokatzeko behar diren leerroak markatzeko. Joko eremua zehaztutakoan elastiko batzuk baliatuz seinالاتu zituzten atatak.

Atzetik heldu zitzaion trenaren txistua entzutean jiratu egin zen gerentea. Bide estuko trena sartu berria zen. Hotelaren atzeko aldean zegoen, ehunen bat metrora. Agerikoa zen geltoki zaharra eraikitzeke orduan baserri idealizatu baten eredia izan zutela oinarri. Tenorea edozein zela ere, bi nasetako itsas gaztainondoen gerizpea ez zen zabala.

Handik gutxira trena abiatzen ikusi zuen gerenteak. Itsasertzetik sobera aldendu gabe zihoazen bagoi ilunak eta itsasadarreke zubiaren gainetik pasatuz jo zuten beste aldean.

Trena ostendu bezain laster gerenteak pasealekuko txaletetarantz itzuli zituen begiak. Haietako bik igerilekuak zituzten atzeko aldean. Ur gainean erabat horitu gabeko hosto zabalak ageri ziren.

Pergolatik hoteleko kafetegira iristeko terraza zeharkatu behar izan zuen gerenteak. Terrazako mahai gehienak bezeroz beteta zeuden. Ez zegoen gazterik. Batzuk karta jokoan ari ziren eta gainerakoak itsasoa atzean zutela, berriketan. Mahaien gainean zeuden kikarak eta edontziak aspaldi hustuak zituztela zirudien. Zerbitzari bakarra kafetegian zegoen, ateari bizkar emanda eta erdi markurtuta, arreta telebistapean jarritako zerbaitetan bildua. Gerenteak zuzenean jo zuen leiho zabalaren ondoko egongela txikiraino. Hango sofa luzea eta bi chester besaulkiak aski higituak zeuden besoetan eta tarratatu txikiak zituzten han-hemenka. Gerenteak

betaurrekoak kendu eta bi besaulkien arteko mahaitxoan utzi zituen begiak igurtzi aurretik.

Zerbitzaria soina zuzentzean ohartu zen gerentea zain zeukala. Barkamena eskatu zion: aspaldian al zinen hor? Eta eskuak garbitu ondoren gerenteagana hurreratu zen. Gerenteak zalantza egin zuen eskatu aurretik, baina azkenean presioko garagardo bat ekartzeko esan zion zerbitzariari.

Garagardoa aurrean izan orduko hurrupa luze bat egin zuen. Begiratua hondartzatik kendu gabe egon zen barra aldetik zetozen soinu etenek eta bolumenaren gorabeherak arreta han jartzera behartu zuten arte. Teklen soinutik atera zuen zerbitzaria telebistapeko tresna konektatzeko ahaleginean ari zela. Irudiak eta soinuak pixka batean irauten zuten eta gero bat-batean eteten ziren. Zuri beltzeko film zahar baten puskak ziren, inondik ere. Handik gutxira, erabat ezarri zirenean, zerbitzariak besoak hazta eginda jarraitu zituen pixka batean; gero tresnaren aurrean berriz makurtu eta filma aurreratzea eta geldiaraztea lortu zuen.

Txanpon batzuk eskuan, gerentea barraraino hurbildu zen. Kobratzeko eskatu zion zerbitzariari, eta pagatu eta gero ere, zerbitzariak bezala, burua gorantz eginda jarraitu zuen pantailako irudiei beha: hau da, beraz, hainbeste famatzen duten traste berri hori...

Zerbitzariak baietz, eta tresnaren izena jakinarazi zion: bideoa.

Filma ez da gaurkoa, esan zuen gerenteak bere artean ariko balitz bezala. Zerbitzariak sorbaldak jaso zituen. Probatzeko utzia ziotela, ez zirela bereak ez filmak ez tresna, eta bi kutxa atera zituen gerenteak ikus zitzan. *Laura*, irakurri zuen gerenteak lehenengoaren azalean. Irribarre murriz batek apenas luzatu zizkion ezpainak. Erpurua lokian, gainerako hatzak kopetari itsatsita egon zen zenbait segundoz filmaren azala begien parean zuela.